# ikus puntua

**Bizkaiko ekonomia**
**La economía de Bizkaia**
**#3 abendua/diciembre 2004**

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:
**www.berrikuntza.bizkaia.net**
**www.camarabilbao.com**

| Behatokia | | Observatorio |
|---|---|---|
| Esku artean dugun informazioaren arabera, Bizkaiko ekonomiaren eboluzioa ona izan da 2004ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hilabeteetan baino motelagoa hala ere. | = | A juzgar por la información disponible, durante el tercer trimestre de 2004 la economía de Bizkaia evoluciona favorablemente, aunque a un ritmo más moderado que en meses precedentes. |
| Industriaren Konfiantza Adierazleak egonkor eutsi dio 2004. urtean zehar, baina 2003an baino emaitza hobeak lortu ditu. | = | El Indicador de Confianza de la Industria mantiene una línea estable a lo largo del año, aunque con una situación mejor a la de 2003. |
| Bizkaiko industrien produkzio gaitasuna hobetu egin da. | + | Mejora la utilización de la capacidad productiva de las industrias de Bizkaia. |
| Eraikuntzako lizitazio ofiziala ikaragarri hazi da (%120) obra zibilari esker. | + | En la Construcción se produce un fuerte incremento de la licitación oficial (120%) gracias a la obra civil. |
| Portuko merkatugaien eta aireportuko bidaiarien trafikoari dagokionez, jarduera maila handia erregistratu da berriz ere. | + | Se mantiene el elevado nivel de actividad tanto en el tráfico de mercancías del Puerto como en el de pasajeros del Aeropuerto. |
| Esportazioek hazkunde tasa handiak (%22) erregistratzen jarraitu dute, hala ere, urteak aurrera egin ahala motelduz doazela dirudi. | + | Las exportaciones mantienen importantes tasas de crecimiento (22%) que, no obstante, se van atenuando conforme avanza el año. |
| Egoera ekonomiko honek ekintzaile berriak animatu ditu eta, hartara, urtearen lehen bederatzi hilabeteetan 2.117 enpresa sortu dira Bizkaian. Hau da, 105 sozietate berri gehiago dago 2003ko lehen bederatzi hilabeteekin konparatuz. | + | La situación económica anima a los nuevos emprendedores. Así, durante los nueve primeros meses del año se crearon en Bizkaia 2.117 empresas. Esta cifra supone un aumento en 105 nuevas sociedades sobre la del mismo período de 2003. |
| Bizkaiko langabezi tasa %8,3koa izan da, hau da, 2003ko hirugarren hiruhilekoan zegoena. | = | La tasa de paro de Bizkaia se sitúa en el 8,3%, lo que supone mantenerse al mismo nivel que durante el tercer trimestre de 2003. |
| Ziurgabetasun ekonomiko eta geopolitikoak erabat desagertu ez badira ere, Bizkaiko enpresen igurikapenak positiboak dira. Nolanahi ere, eboluzio ekonomikoaren dinamismoa faktore hauek baldintzatzen dute: inguruko ekonomi guneen hazkunde erritmoak eta petrolioaren prezioak hurrengo hilabeteetan izango duen bilakaerak. | + | A pesar de que las incertidumbres, tanto económicas como geopolíticas, no terminan de despejarse, las expectativas de las empresas de Bizkaia continúan siendo positivas. En cualquier caso, el mayor o menor dinamismo de la evolución económica vendrá determinado por el ritmo de recuperación de las distintas áreas económicas, y por el recorrido del precio del petróleo en los próximos meses. |


Bizkaiko Foru Aldundia
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Innovación y Promoción Económica

BILBOKO MERKATARITZA GANBERA
CÁMARA DE COMERCIO DE BILBAO

## Industria

Bizkaiko industri sektoreak egonkor eutsi dio urtearen lehen zortzi hilabeteetan, halere, zertxobait hazi dela esan daiteke.

Urtero legez, udako hilabeteetan industriaren sektorea moteldu egiten da aurreko hilabeteen aldean, dena den, Industriaren Konfiantza Adierazlea aurreko urtekoa baino askoz positiboagoa da.

2004ko laugarren bihilekoan produkzioa hobetu edo berdin mantendu dela dio inkestatutako enpresen %57k (%42 2003an). Gainera, enpresen igurikapenak oso positiboak dira, %87k uste baitu bere produkzioa handitu edo behintzat egonkor mantenduko dela hurrengo hilabeteetan.

## Industria

La evolución de la Industria de Bizkaia a lo largo de los primeros ocho meses del año se caracteriza por la estabilidad, aunque en un contexto de ligera tendencia de crecimiento.

Al igual que sucede todos los ejercicios, en los meses centrales del verano se produce un retroceso con respecto a los meses precedentes. No obstante, el Indicador de Confianza de la Industria presenta una situación claramente mejor a la de un año antes.

La producción aumenta o se mantiene estable en el cuarto bimestre de 2004 en el 57% de las industrias encuestadas (42% en 2003), presentando además unas perspectivas muy favorables, ya que un 87% opina que su nivel de producción se mantendrá o aumentará en los próximos meses.




**Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazlea**
Oharra: Industriaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Industri Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu. Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera

Jatorrizko saila
Joera

**Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia**
Nota: el Indicador de Confianza de la Industria se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Industrial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao, y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas. Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Serie original
Tendencia

Enpresen %55ak uste du eskabide-zorro egokia dutela (%48 2003an), gainera, nabarmen jaitsi da eskabide-zorro txikiagoa duten enpresen portzentajea: %46 2003ko laugarren bihilekoan eta %36 2004an (baita ere laugarren bihilekoan).

Bizkaiko enpresen produkzio gaitasuna hobetu egin da 2004ko laugarren bihilekoan, %84ra iritsi baita, hau da, aurreko urtean (%80) baino maila handiagoa erdietsi du.

Langile berrien kontratazioa alde batera utzita, 2004aren amaierarako igurikapenak positiboak dira. Ildo horretatik, enpresen %30ak aurreikusi du bere produkzioa eta salmentak handituko direla eta %23k dio beren eskabide-zorroa hazi egingo dela. Gehienen ustez (%75) salmenta prezioek egonkor jarraituko dute, eta, enplegua berdin mantenduko dela aurreikusi bada ere (%73), inkestaturiko enpresaburuen %14k dio jaitsi egingo dela.

Por lo que respecta a la cartera de pedidos, un 55% de las empresas encuestadas considera que su nivel es adecuado (48% en 2003), con una reducción apreciable de aquellas en las que disminuye dicha cartera al pasar de un 46% en el cuarto bimestre de 2003 a un 36% en el mismo período de 2004.

La utilización de la capacidad productiva de las industrias de Bizkaia en el cuarto bimestre de 2004 también mejora al alcanzar un 84%, un nivel superior al 80% del año anterior.

Para la parte final del año, salvo en el caso de las nuevas contrataciones de personal, las expectativas se mantienen positivas. El 30% de las empresas prevé un incremento en la producción y en las ventas, mientras que aquellas que esperan un aumento en su cartera de pedidos supone un 23% del total. La previsión mayoritaria sobre la evolución de los precios de venta se inclina por la estabilidad (75%), mientras que, como ya se ha señalado, aunque las estimaciones sobre la evolución del empleo apuntan que se mantendrá estable (73%), existe un porcentaje de empresas (14%) que opina que disminuirá.

## Eraikuntza

Eraikuntzaren sektoreko hazkundeak oso garrantzitsua izaten jarraitzen du, hala ere, urtearen azken hilabeteetan moteldu egin da. 2004ko lehen zazpi hilabeteetako lizitazio ofizialak hazkunde-erritmo onean jarraitu du obra zibilaren eboluzio positiboari esker, zeinak aurreko urteko lehen zazpi hilabeteetako kopuruak laukoiztu baititu. Eraikuntza, aitzitik, %60 jaitsi da. Nolanahi ere, eraikuntzak oso garrantzi txikia du obra zibilaren aldean, eta, beraz, lizitazioa oro har asko hazi da (%120,5).

Etxebizitzen eraikuntzari dagokionez, urtearen lehen bederatzi hilabeteetan hasitako etxebizitzen kopurua, hala libreena nola babes ofizialekoena, %48,7 jaitsi da; aitzitik, bukatutako etxebizitzak %17,6 hazi dira

Zementu kontsumoaren eboluzioa hasitako etxebizitza kopuruaren araberakoa da, horrela beraz, 2004ko lehen zazpi hilabeteetan 412,7 tonakoa izan da, hau da, %-16,7 gutxitu da 2003ko aldi berarekin konparatuz.

## Construcción

El crecimiento del sector de la Construcción se ralentiza en los últimos meses del año. La licitación oficial correspondiente a los siete primeros meses continúa creciendo a buen ritmo gracias a la positiva evolución de la obra civil, cuyas cifras se han cuadruplicado con relación a 2003. Sin embargo, la edificación ha evolucionado en sentido contrario al reducirse un 60%. En todo caso, dado que su peso específico es muy inferior al de la obra civil, el conjunto de la licitación ha aumentado (120,5%).

El número de viviendas iniciadas en los nueve primeros meses del año, libres o de protección oficial, disminuye un 48,7%; por el contrario, las viviendas terminadas aumentan en un 17,6%.

La evolución de la cifra de consumo de cemento es acorde a la del número de viviendas iniciadas. En el conjunto de los siete primeros meses de 2004 se alcanzaron los 412,7 millones de toneladas, lo que supone una disminución del 16,7% con respecto al mismo período de 2003.




**Bizkaiko Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea**
Oharra: Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Merkataritza Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu. Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

Jatorrizko saila
Joera

**Indicador de Confianza del Comercio de Bizkaia**
Nota: este Indicador se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Comercial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao, y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas. Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Serie original
Tendencia

## Zerbitzuak

Zerbitzuen sektorea indarberritu egin zen urtearen lehen sei hilabeteetan eta hurrengo hilabeteetan ere joera berbera erakutsi du. Bilboko Txikizkako Merkataritzaren Abagune Inkestaren emaitzak nabarmen hobetu dira uztaila eta abuztuan, hortaz, aurreko urteko uztaila eta abuztuan baino maila askoz hobea erdietsi da.

Merkataritzaren Konfiantza Adierazlearen arabera, 2004ko lehen bederatzi hilabeteetan Bizkaiko aisia-turismo sektoreak ere eboluzio positiboa izan du. Hartara, 556.936 bisitari bertaratu dira Bizkaira lehen bederatzi hilabete horietan, hau da, aurreko urtean baino 83.847 pertsona gehiago (%17,7). Gau igarotzeen hazkunde tasa are handiagoa izan da (%19), alegia: 1.061.527, 2004ko urtarrila-irailean (891.857, 2003an). Azkenik, okupazio maila (%56,15) eta batez besteko egonaldia (2,01) ere hazi egin dira.

## Servicios

La reactivación que mostraba el sector de Servicios en la primera mitad del año se mantiene a lo largo de los meses posteriores.Los resultados de la Encuesta de Coyuntura del Comercio Minorista de Bizkaia mejoran, por lo que consolidan una línea de estabilidad en niveles superiores a los del mismo período de 2003.

En los nueve primeros meses de 2004 el sector de Ocio-Turismo de Bizkaia evoluciona positivamente. En ese período Bizkaia acogió un total de 556.936 visitantes, lo que supone un crecimiento en términos absolutos de 83.847 personas (17,7%). La tasa de crecimiento de las pernoctaciones fue aún mayor (19%) alcanzando un total de 1.061.527 en enero-septiembre de 2004 (891.857 en 2003). Por último, tanto el grado de ocupación (56,15%) como la estancia media (2,01) han experimentado también una mejoría.




**Bidaiarien eta hotel-establezimenduetan igaritako gauen eboluzioa**

Bidaiariak
Gau Igarotzeak

* urtarrila-iraila
Iturria: Eustat.

**Evolución de viajeros y pernoctaciones en establecimientos hoteleros**

Viajeros
Pernoctaciones

* enero-septiembre
Fuente: Eustat.

## Azpiegiturak

2004ko lehen bederatzi hilabeteetan Bilboko Portuko merkatugaien trafikoa %17,8 hazi da; horrek esan nahi du 23,5 milioi tonako trafikoa egon dela, 2003ko urtarrila-irailean baino 3,5 milioi gehiago. Deskargatutako merkatugaiak guztizko trafikoaren hiru laurden dira eta batez bestekoa baino gehiago hazi dira (%19,2), kargatutakoak, ordea, gutxixeago hazi dira (%14,3).

## Infraestructuras

El incremento del tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao en los nueve primeros meses de 2004 se ha situado en un 17,8% hasta alcanzar un total de 23,5 millones de toneladas, 3,5 millones más que en enero-septiembre de 2003. Las mercancías descargadas, que suponen tres cuartas partes del tráfico, muestran una tasa de crecimiento superior a la media (19,2%), mientras que las mercancías cargadas aumentaron de un modo más moderado (14,3%).




**Merkatugaien trafikoaren eboluzioa bilboko portuan (Milaka tona)**

Kargatutakoak
Deskargatutakoak

* urtarrila-iraila
Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

**Evolución del tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao (Miles de Tm.)**

Cargadas
Descargadas

* enero-septiembre
Fuente: Autoridad Portuaria de Bilbao.

2004ko lehen bederatzi hilabeteetan, 2.598.575 bidaiarik 38.240 hegaldi (2.003an baino 5.400 gehiago) erabili dituzte Bilbo-Loiu aireportuan. Horrek esan nahi du kopurua %22 hazi dela. Horrela jarraituz gero, 3 milioi bidaiarien muga gaindi liteke urtea bukatu baino lehen.

Durante los nueve primeros meses de 2004 un total de 2.598.575 personas utilizaron los 38.240 vuelos (5.400 más que en 2003) que aterrizaron o despegaron del Aeropuerto de Bilbao-Loiu. Estas cifras suponen un incremento del 22% y permiten seguir pensado en la posibilidad de alcanzar los tres millones de pasajeros antes de finalizar el año.




**Bidaiari trafikoaren eboluzioa Bilbo-Loiuko aireportuan**

* urtarrila-iraila
Iturria: Aena. Bilboko aireportua.

**Evolución del tráfico de pasajeros en el aeropuerto de Bilbao-Loiu**

* enero-septiembre
Fuente: Aena. Aeropuerto de Bilbao.

## Kanpo merkataritza

Urtearen lehen zazpi hilabeteetan Bizkaiko kanpo merkataritzak hazkunde tasa positiboak erregistratu ditu, hala ere, badirudi urteak aurrera egin ahala moteldu doala. Horrela beraz, esportazioen guztizko kopurua 3.208,9 milioi eurokoa izan da, beraz, %22,2 hazi da 2003ko aldi berarekin konparatuz; bestalde, inportazioen guztizko kopurua 3.923,3 milioi eurokoa izan da eta %19,2 hazi da.

"Garraio materialaren" esportazioak (hirugarren sektore garrantzitsuena kanporako salmentei dagokienez) hazi dira gehien eta 2003ko kopuruak bikoiztu dituzte. Era berean, eboluzio positiboa dute "mea eta petrolio produktuen" esportazioek, %49,2 hazi baitira.

## Comercio Exterior

El Comercio Exterior de Bizkaia mantiene a lo largo de los siete primeros meses del año importantes tasas de crecimiento que, no obstante, se van atenuando según va transcurriendo el año. De este modo, se han realizado exportaciones por un valor de 3.209 millones de euros con un porcentaje de crecimiento del 22,2% con respecto al mismo período de 2003, y las importaciones se situaron en 3.923 millones de euros con un incremento del 19,2%.

Las exportaciones de "material de transporte", tercer sector en importancia en cuanto a volumen de ventas al exterior, presentan el mayor crecimiento, duplicando el importe del año 2003. También continúan mostrando cifras destacadas las exportaciones de "productos petrolíferos y minerales" con un incremento del 49,2%.




**Bizkaiko kanpo merkataritzaren eboluzioa (milaka euro)**

Inportazioak
Esportazioak

*urtarrila-uztaila
Iturria: Merkataritza Ganberak.

**Evolución del comercio exterior de Bizkaia (mill. euros)**

Importación
Exportación

*enero-julio
Fuente: Cámaras de Comercio.

## Enpresa dinamismoa

2004ko lehenengo bederatzi hilabeteetan 2.117 sozietate berri sortu dira Bizkaian. Kapitalaren guztizko ekarpena 302,5 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko kapitala 142.880 eurora iritsi da batez beste. Horrek esan nahi du 105 sozietate berri gehiago dagoela 2003ko aldi berberarekin konparatuz (2.012 enpresa).

## Dinamismo empresarial

En los nueve primeros meses de 2004 se han creado en Bizkaia 2.117 nuevas sociedades con un capital total aportado de 303 millones de euros, lo que supone un capital medio por empresa de 142.880 euros. Este dato supone un incremento en 105 nuevas sociedades sobre la cifra del mismo período del pasado año que se situó en 2.012 empresas.




**Enpresa sorreraren eboluzioa**

* urtarrila-iraila

Iturria:
Merkataritza Erregistroko Buletina.

**Evolución de la creación de empresas**

* enero-septiembre

Fuente:
Boletín del Registro Mercantil.

Zerbitzuen sektorearekin lotutako jarduerak lehen postuan daude, hau da: enpresa sortu berrien %75 dira, kapital sozialaren %86 ordezkatzen dute eta 66 sozietate gehiago sortu dira. Eraikuntzaren sektorean 353 sozietate berri sortu dira, hau da, Bizkaian sortutako konpainia guztien %16,7 dira eta kapital sozialaren %12,1 ordezkatzen dute. 2004ko lehen bederatzi hilabeteetan sortutako sozietateen %7,8 industriaren sektorekoak dira, hots, kapital sozialaren %1,7 ordezkatzen dute (hots, 5,2 milioi euro).

Las actividades relacionadas con el sector de Servicios ocupan el primer puesto con un 75% de las nuevas empresas creadas, un 86% del capital social y un crecimiento en 66 sociedades. En el sector de la Construcción se han constituido 353 nuevas compañías, suponiendo un 16,7% de las empresas creadas en Bizkaia, con un 12,1% del capital social. Un 7,8% del conjunto de sociedades creadas en los nueve primeros meses de 2004 corresponden al sector industrial, con un 1,7% del capital social, lo que supone 5,2 millones de euros.

## Lan merkatua

hau da, 2003ko hirugarren hiruhilekoan erregistraturiko berbera, aurreko hiruhilekoan baino 0,5 puntu gutxiagokoa, eta, hala ere, EAEko langabezi tasa baino handiagoa (%7,6).

Langile okupatuen kopurua %0,9 hazi da eta 4.400 langile okupatu gehiago dago. Bestalde, 42.300 langabetu erregistratu dira guztira, hortaz, urtearteko tasa %0,7 hazi da eta irailaren amaieran 300 langabetu gehiago egon dira Bizkaian.

## Mercado de trabajo

La tasa de paro de Bizkaia en el tercer trimestre de 2004 es de un 8,3%, lo que significa situarse al mismo nivel que el tercer trimestre de 2003 y 0,5 puntos por debajo de la del trimestre anterior. En todo caso, continúa por encima de la tasa de paro de la Comunidad Autónoma de Euskadi (7,6%).

El número de personas ocupadas aumentó en un 0,9%, incrementándose en 4.400 la cifra de personas con trabajo. La cifra de parados se situó en 42.300 personas, lo que significa un aumento en tasa interanual del 0,7%, por lo que al finalizar septiembre había 300 parados más en nuestro Territorio Histórico.




**Langabezi tasaren eboluzioa (%-tan)**
Iturria: PRA. EUSTAT.

**Evolución de la tasa de paro (en %)**
Fuente: PRA. EUSTAT.

| BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK | Iturria | Epea | 2003 | 2004 | % 04/03 |
|---|---|---|---|---|---|
| JARDUERA | | | | | |
| - Industriaren Konfiantza Adierazlea | CCB | Uztaila-abuztua | -12 | -9 | -- |
| - Industri Produkzioaren Indizea (1) | EUSTAT | Iraila | 108,0 | 112,1 | 4,6 |
| - Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh) | IBERDROLA | Urtarrila-iraila | 3.250 | 3.579 | 10,1 |
| - Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%) | CCB | Uztaila-abuztua | 80 | 84 | -- |
| - Eskabide-zorroa (2) | CCB | Uztaila-abuztua | -41 | -32 | -- |
| - Zementu Kontsumoa (milaka tona.) | OFICEMEN | Urtarrila-uztaila | 495 | 413 | -16,7 |
| - Lizitazio Ofiziala (milioi euro) | SEOPAN | Urtarrila-uztaila | 276 | 608 | 120,5 |
| - Hasitako etxebizitzak | VAS-GV | Urtarrila-iraila | 5.227 | 2.680 | -48,7 |
| - Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.) | AUT. PORT. | Urtarrila-iraila | 19.933 | 23.485 | 17,8 |
| - Loiuko Aireportuko bidaiarien Trafikoa (milaka pertsona) | AENA | Urtarrila-iraila | 2.131 | 2.598 | 21,9 |
| - Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona) | EUSTAT | Urtarrila-iraila | 891 | 1.061 | 19,1 |
| - Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea | CCB | Uztaila-abuztua | -11 | -8 | -- |
| ESKABIDE ETA PREZIOAK | | | | | |
| - Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea | FCVN | III. hiruhilekoa | -6 | -11 | -- |
| - Ibilgailuen Matrikulazioa | DGT | Urtarrila-iraila | 20.194 | 23.659 | 17,1 |
| - Industri Ibilgailuen Matrikulazioa | DGT | Urtarrila-iraila | 4.023 | 4.784 | 18,9 |
| - Bizkaiko KPI | INE | Iraila | 107,1 | 110,5 | 3,3 |
| - Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 102,2 | 109,2 | 4,4 |
| LAN MERKATUA | | | | | |
| - Biztanle Okupatuak (milaka pertsona) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 461,6 | 466,0 | 0,9 |
| - Biztanle Langabetuak (milaka pertsona) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 42,0 | 42,3 | 0,7 |
| - Langabezi Tasa (%) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 8,3 | 8,3 | -- |
| - Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona) | INEM | Iraila | 42,0 | 40,7 | -3,1 |
| - Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona) | MTAS | Iraila | 442,3 | 449,3 | 1,6 |
| KANPO SEKTOREA | | | | | |
| - Esportazioak (milaka euro) | ADUANAS | Urtarrila-uztaila | 2.626 | 3.208 | 22,2 |
| - Inportazioak (milaka euro) | ADUANAS | Urtarrila-uztaila | 3.280 | 3.911 | 19,2 |
| ENPRESA DINAMISMOA | | | | | |
| - Sozietateen sorrera | CCB | Urtarrila-iraila | 2.012 | 2.117 | 5,2 |

(1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza
* 2002 eta 2003

| INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA | Fuente | Período | 2003 | 2004 | % variac |
|---|---|---|---|---|---|
| ACTIVIDAD | | | | | |
| - Indicador de Confianza de la Industria | CCB | Julio-agosto | -12 | -9 | -- |
| - Índice de Producción Industrial (1) | EUSTAT | Septiembre | 108,0 | 112,1 | 4,6 |
| - Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh) | IBERDROLA | Enero-sept. | 3.250 | 3.579 | 10,1 |
| - Utilización de la Capacidad Productiva (%) | CCB | Julio-agosto | 80 | 84 | -- |
| - Nivel de la cartera de pedidos (2) | CCB | Julio-agosto | -41 | -32 | -- |
| - Consumo de Cemento (miles Tm.) | OFICEMEN | Enero-julio | 495 | 413 | -16,7 |
| - Licitación Oficial (millones euros) | SEOPAN | Enero-julio | 276 | 608 | 120,5 |
| - Viviendas iniciadas | VAS-GV | Enero-sept. | 5.227 | 2.680 | -48,7 |
| - Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.) | AUT. PORT. | Enero-sept. | 19.933 | 23.485 | 17,8 |
| - Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas) | AENA | Enero-sept. | 2.131 | 2.598 | 21,9 |
| - Pernoctaciones en hoteles (miles de personas) | EUSTAT | Enero-sept. | 891 | 1.061 | 19,1 |
| - Indicador de Confianza del Comercio | CCB | Julio-agosto | -11 | -8 | -- |
| DEMANDA Y PRECIOS | | | | | |
| - Índice de Confianza del Consumidor | FCVN | III trimestre | -6 | -11 | -- |
| - Matriculación de Automóviles | DGT | Enero-sept. | 20.194 | 23.659 | 17,1 |
| - Matriculación de Vehículos Industriales | DGT | Enero-sept. | 4.023 | 4.784 | 18,9 |
| - IPC Bizkaia | INE | Septiembre | 107,1 | 110,5 | 3,3 |
| - Indice de Ventas del Comercio Minorista (3) | EUSTAT | III trimestre | 102,2 | 109,2 | 4,4 |
| MERCADO LABORAL | | | | | |
| - Población Ocupada (miles personas) | EUSTAT | III trimestre | 461,6 | 466,0 | 0,9 |
| - Población Parada (miles personas) | EUSTAT | III trimestre | 42,0 | 42,3 | 0,7 |
| - Tasa de Paro (%) | EUSTAT | III trimestre | 8,3 | 8,3 | -- |
| - Paro registrado (miles personas) | INEM | Septiembre | 42,0 | 40,7 | -3,1 |
| - Afiliados a la Seguridad Social (miles personas) | MTAS | Septiembre | 442,3 | 449,3 | 1,6 |
| SECTOR EXTERIOR | | | | | |
| - Exportaciones (millones de euros) | ADUANAS | Enero-julio | 2.626 | 3.208 | 22,2 |
| - Importaciones (millones de euros) | ADUANAS | Enero-julio | 3.280 | 3.911 | 19,2 |
| DINAMISMO EMPRESARIAL | | | | | |
| - Creación de sociedades | CCB | Enero-sept. | 2.012 | 2.117 | 5,2 |

(1) Incremento en relación al mismo período del año anterior
(2) Saldo neto de respuestas
(3) Incremento sobre la media del mismo período del año anterior
* 2002 y 2003.